

MUNGIA / 'Kontuleku', familien txokoa

Mungiako liburutegiak asteazkenero biltzen ditu haurrak eta bere senideak

Irakurtzea bakarka egin ohi den ekintza badirudi ere, literaturazaletasuna familia artean lantzea da hoberena. Hala uste dute Durangoko Atarte Kultur Elkarteko kideek, eta horregatik Kontuleku deritzon ekimena abian jarri zuten udal liburutegietan, irakurzaletasuna haurren artean sustatzeko asmoz, hain zuzen. Bizkaiko hainbat herri bisitatu ondoren, ekainaren 22ra arte Mungiako Torrebillelako haur-liburutegian garatuko da dinamizazio-programa hau. Ipuinak irakurtzeaz eta kantak abesteaz gain, ekimen honen ezaugarriarik deigarriena zera da: haurrekin batera, gurasoek ere parte hartzen dute. Hau da, haur bakoitzeko senide bat egoten da saio bakoitzean. Umeekin batera, gurasoek irakurri egingo dute eta begiraleek proposatutako ekintzetan parte hartu beharko dute ere bai. 'Literatura dela bide, gurasoen -edota aiton-amonen nahiz beste senideen-, eta seme-alaben arteko harremanak lantzea ere da xedea', aipatzen du Idurre Arrazola, Atarte Kultur Elkarteko kideak.

Helduen eredia

Mungian garatzen ari den Kontuleku tailerra joan den hilaren 4an hasi eta asteazkenero antolatzen da. Guztira zortzi saio izango dira eta bi txanda bereizten dira: alde batetik, 3 eta 4 urte bitarteko hurrez osatutako taldea (arratsaldeko 17.00etatik 18.00etara dena) eta bestetik, 5 eta 6 urteko umeen saioa (18.00etatik 19.00etara). Tailerra euskara hutsez garatzen da, eta Atarteko begiraleaz gain, Mungiako Udal liburutegiko arduradunek ere laguntzen dute. 'Ordu beteko saio oso dinamikoa da, berehala igarotzen baita denbora abesten eta jolasten haurrekin', baieztatzen dute Mungiako liburuzainek. Talde bakoitzean zortzi ume inguruk (euren senideek batera, jakina) hartzen dute parte. Kontuleku egitasmoa orain dela pare bat urte hasi zen euskal liburutegietan, 'literaturaren magia' familiei erakusteko xedez. 'Ohartu ginen hurrei zuzendutako hamaika ekitaldi egiten direla gure artean, baina ekintza gehienetan gurasoek ezin dute parte hartu, hots, seme-alabak ludotekan edo dena delako aretoan utzi eta alde egiten dute, umeak berriz hartzeko ordua ailegatu arte', azaltzen du Arrazolak.

'Irakurzaletasuna haurrengan sustatu nahi bada, haurrek gurasoak eredu izan behar dute, hortaz, hauek ez badute irakurtzen, alperrik da!', irizten dute Mungiako liburuzainek. Gauzak horrela, senideak eta haurrak elkarrekin batera lantzeko ekintzak proposatzeari ekin zioten. 'Hasieran helduak lotsati samar ageri ziren, ez baitzeuden ohituta gisa honetako ekintza batean elkarreragitera', zehazten du. Dena den, saioa aurrera joan ahala, familia-arteko giro 'oso aproposa' sortzen da eta partaideak gustura egotea lortzen dute Atarteko begiraleek. Abagune horretan, ipuinak 'baloreak eta sentimenduak lantzeko erreminta ezinhobeak' bihurtzen omen dira. Saio arrunt batean, begiralea ipuin bat ozenki irakurtzen hasten da eta segituan gurasoei pasatzen die testigua. Ondoren, irakurketaren gainean gogoeta egiten dute, ea zer pasarte gustatu zaien, zein ez, zergatik, etab. Saio bakoitzean irakurketa ezberdinak lantzen dira, bai ipuin klasikoak, baita haur-literaturako azken nobedadeak, olerkiak nahiz abestiak ere. Ekintzak adinaren arabera egokitzen dituzte antolatzaileek. Jakina, 'bakarka eta lasai' irakurtzeko uneak ere badira. Atarteko arduradunari jarraiki, ekimen hau haurren arreta ahalmena areagotzen du. 'Liburutegi guztietan urte osoko ikastaro finkoa izan behar luke Kontuleku ekimenak', adierazten du Arrazolak.